

**“IRAKASKUNTZAN ETA IKERKETAN LAGUNTZEKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIAK (MEKANIKA)” LAN POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUA. 2016ko OTSAILAREN 19ko GERENTEAREN ERABAKIA
LEHEN ARIKETA: DATA ETA LEKUA**

Deialdiaren Seigarren eta Zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakia), “Irakaskuntzan eta Ikerketan Laguntzeko maila ertaineko teknikariak (Mekanika)” lan-poltza sortzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Hautaketa-prozesuko lehen ariketa, Deialdiaren Seigarren Oinarriko 6.1 atalean zehaztuta dagoena, **2016ko maiatzaren 13an** izango da (ostirala). **15:00ean** izangaien egiaztapena egingo da, eta 15:30ean hasiko da azterketa. Lekua: **Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa** (Urkixo Zumarkalea z/g). G eraikuntzako hirugarren solairuko **P2G6A** gelan.

BIGARRENA.- Probaren zehaztasunak honako hauek dira:

- Lehen ariketan 50 galdera (gehi erreserbako 8) dituen galdeketa bat egingo da. Galdera bakoitzak **4 erantzun** izango ditu haietatik bakarra izango delarik zuzena.
- Iraupena: 1 ordu eta 20 minutu

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaporte edo gidabaimena eraman behar dela (Seigarren Oinarriko 6.1.5. atala).

Leioa, 2016ko apirilaren 20



Epaimahaiko idazkaria